



2020-21 IKASTURTERAKO "BAT TALDE ERAGILEA" SORTZEKO DEIALDIA

1. Helburua

Ekimen honen helburu nagusia da BAT programan ikasle tutore bezala parte hartu izan duten ikasleei hitza, konfiantza eta ahalduntzeko aukera ematea. Unibertsitatera heltzen diren belaunaldi berriei ekarpen handia egin diezaiekete, beraien ezagutzak eta esperientziak transmitituz.

2. Garatu beharreko funtzioak

A Aukera) Irailaren lehenengo astean online egingo den prestakuntza saioan aktiboki parte hartzea:

- Formazioan hizlari edota tutore.
- EgelaPI plataforma elikatu orientaziorako materialarekin.

B Aukera) Ikasturtean zehar esperientzia-trukeen arteko foroetan parte-hartzea, materiala sortzea (adibidez, bideo-pilulak ikastegiko 1. mailako ikasleentzat, edo FAQ galderak,...) edota ikasle-tutore taldea dinamizatzeko bestelako ekimenak.

Nahi izanez gero, bi aukerak egin ahal izango dira.

3. Baldintzak

Aurreko ikasturteren batean BAT programan ikasle tutore gisa aritu izana.

4. Izen-ematea

<https://www.ehu.eus/eu/web/ikasleak/berdinen-arteko-tutoretza> web-orrian agertzen den formularioa bete beharko da **2020ko ekainaren 15a** baino lehen.

5. Hautaketarako irizpideak

- UPV/EHUko ikasleen ordezkari organoetan parte hartu izana
- Komunikazioarekin, taldeen dinamikarekin, arazoaren ebazpenarekin eta antzekoekin zerikusia duen araututako prestakuntza, eta esperientzia online prestakuntzan
- UPV/EHUko orientazio-ekimenetan parte hartu izana (Jardunaldi irekiak, orientazio-azokak, ...)
- Ikaslearen espedientea
- BAT Programaren koordinatzailearen balorazioa: koordinatzaileari ikasle tutoreak bete zuen eginkizunari buruzko iritzia kontsultatu ahal izango zaio.
- Bestelakoak

6. Aitorpena

- **2 ECTS** (1 ECTS online ikastaroa edo/ eta 1 ECTS ikasturtean zeharreko ekimenak)
- Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren ziurtagiria

7. Ebazpena

Hautatutako pertsonen ebazpena uztailaren 10erako web-orrian argitaratuko da.

Donostian, 2020ko maiatzaren 15ean

Sin. /Fdo.: **Txelo Ruiz Vazquez**
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Estudiantes y Empleabilidad



ERANSKINA: HAUTAPEN-PROZESURAKO IRIZPIDEAK

Taldea hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. IKASLEEN ORDEZKARITZA (gehienez 10 puntu)

Ikasle kontseiluko ordezkariak: gehienez ere **2 puntu**. Puntuazio osoa ikasturte bati emango zaio, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoei.

Unibertsitateko kide anitzeko organoetako ordezkariak: gehienez ere, **2 puntu**. Puntuazio osoa ikasturte bati emango zaio, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoei.

Ikastegiko kide anitzeko organoetako ordezkariak: gehienez ere, **2 puntu**. Puntuazio osoa ikasturte bati emango zaio, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoei.

Taldeko ordezkariak: gehienez ere, **4 puntu**. 2 puntu emango dira ikasturte bakoitzeko, eta proportzionalki emango zaie aldi laburragoei.

2.- PRESTAKUNTZA (gehienez 25 puntu).

Komunikazioko eta taldeen dinamikako gaitasunekin zerikusia duen prestakuntza zein esperientzia online prestakuntzan hartuko da kontuan

Komunikazioarekin, taldeen dinamikarekin, arazoen ebazpenarekin eta antzekoekin zerikusia duen araututako prestakuntzagatik (beste titulu batzuetako irakasgaiak), puntu bat emango da ECTS kreditu bakoitzeko (edo 25 orduko), gehienez **10 puntu** lortu arte.

Aisialdiko begirale titulua izateagatik edo taldeak dinamizatzearekin lotutako egiaztatutako esperientziagatik: gehienez ere, **10 puntu**.

Komunikazioko, taldeen dinamikako, arazoak konpontzeko eta abarretako gaitasunarekin zerikusia duen berariazko prestakuntzako 20 orduko: puntu 1, gehienez ere **5 puntu** lortu arte.

3.- EHUko ORIENTAZIO-EKIMENETAN PARTE HARTZEA (gehienez 15 puntu)

Ikastegiak antolatutako jardunaldi irekietan, orientazio-azoketan, ikastegietako hitzaldietan edo bestelako orientazio-jardueretan parte hartzeagatik, **15 puntu** emango dira.

4.- IKASKETA-ESPEDIENTEA (gehienez 50 puntu)

Aurkeztutako eskaera guztien artean, espedientearen batez besteko nota kalkulatu da. Nota altuenari **50 puntu** emango zaizkio, eta gainerako eskaerei, proportzionalki esleituko zaizkie puntuak.

5.- BESTE IRIZPIDE BATZUK KONTUAN HARTZEKO:

- BAT Programaren koordinatzailearen balorazioa. Koordinatzaileari ikasle tutoreak bete zuen eginkizunari buruzko iritzia kontsultatu ahal izango zaio.
- Heterogeneotasuna: talde heterogeneoa izatea nahi da. Hau da, hainbat titulaziotatik datozen ikasleak egotea.

Hautapen-batzordeak baremo horren irizpideak interpretatzeko ahalmena izango du eta haren erabakia apelaezina izango da.

Ikasketa-espedientearen eta prestakuntza osagarriaren puntuazioak ezingo ditu 75 puntu gainditu.